

Fermin Erñiti

KAZETARIA

Teologoa, ekonomialaririk hoberena

Guraizeak eskutan harturik, gure agintariak buru-belarri ari dira mozketak lanetan, administrazioen diru-sarrerak eta gastuak orekatzeko asmoz.

Gizarte zerbitzuak kinka larrian eta ahulenak ahulago utziko dituen mozketaldiak gizartearen haserrearen eragin badu ere, politikariek non eta nola moztu, horixe dute eguneroko erronka nagusi. Pernandoren egia izan arren, merezi du gogoratzea: kontuak orekatzeko bide bakarra ez da gastuak murriztea, diru-sarrerak ere handi litezke; zuzeneko eta zeharkako zergen arteko oreka, iruzur-maila, honaino ekarri gaituen hazkunde-eredua edo bankuen lotsagabekeria gogoetagai interesgarriak lirateke; eta armetan xahutzen den dirutza ikaragarria gizarte-zerbitzuetara bideratuko balitz?

Kontua da ekonomiak, krisia eta mozketak direla-eta, inoizko tokirik zabalena hartu duela komunikabideetan. Erredakzioetan gaiak zerbitz dakien kazetaria oso *espezje arraroa* izanik, komunikabideek ekonomialarien gana jo dute laguntza eske, haiek krisiaren gakoak behar bezala azaltzea ahalbideratuko digutelakoan. Eta hortxe dituzue, jo eta ke, egunkari, irrati eta telebistetan, krisia gora eta behera. *Periodikua leituz ilustratzen gerala* jakitun, nik ere azterketa horiek irakurtzen ditut,



JOSU SANTESTEBAN

argia noiz ikusiko. Gehienetan, ordea, alferrikako ahalegina izaten da. Aurretik igarri ez zutena, orain begi-bistakoa zela azpimarratzea ez dago gaizki. Iragana etorkizuna baino argitsuagoa baita, letretakook ere hau dena zergatik gertatu den ulertu-edo egin dugu. Gertaturikoaz ez ezik, ba al da horien artean geroaz zerbait esatera ausartuko denik?

Ekonomia ekonomialarien esku uzteko gauza serioegia delakoan, hortik urrun dabilen ideietan ere arakatzeari ekin diot, krisiaren tunel beltzetik ateratzeko argi-printza amets. Bada, amets ez ari garela, hortxe Hans Küng teologoak *Was ich glaube* (*Sinesten dudana*) liburuan gogorarazi diguna: “Ekonomia politikaren menpe jarri behar dugu berriro, eta ekonomia eta politika, etikaren menpe”. Erronka zaila? Jakina, baina letretakook hori aiseago ulertzen dugu azken hilabeteotan bolo-bolo dabilen *estres azterketa* edo *erreskate funtsaren erreforma* baino. Nago suitzarrak proposaturikoa dela krisiari etekina ateratzeko modu bakarra, ezinbestekoa mundu hobearen amesteko.

Ez dakit Küng teologoaren Jainkoaren hitza ote den, baina jainkotu diren ustezko adituen iritziak baino askoz argiagoa eta interesgarriagoa iruditzen zait. ■



Periodikua leituz ilustratzen gerala
jakitun, nik ere azterketa horiek
irakurtzen ditut, argia noiz
ikusiko. Gehienetan, ordea,
alferrikako ahalegina izaten da.
Aurretik igarri ez zutena,
orain begibistakoa zela
azpimarratzea ez dago gaizki

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



oihukatzen zuten tonu garrasitxoan, zuzen akonpasatuak entseiatuz, ongi ikasita zutela adieraziz. Eta erritmoari jarraituz errituala bailitzan, dantzan besoak gora eskual

ukabil, hatz luzeak erakutsiz, oldarkor erronkan, zuzentzen zitzairen ingurukoei uniformedun urdinak hesi. Txuri-urdineko elastikoz mozturoriturik ikurrinak airean erakusten zuten nongotasuna harrokeriaz. Eta liturgia hori, Zaragozako futbolariaren batek lurrera egiten zuen bakoitzean. Maitasun kantua ere bazuten Realari eskainia, “*cada día te quiero más*” edo holako mezu poetikoren batez osatua, tartean nolako sortzaileez hornituak daudela argi-

Pisalo, pisalo

tuz. Griezmannen zelairatzeak ekarri zigun esloganetan izarra: “*Griezmann cabrón esto es afición*” eskaintzen ziotelarik. Espainiakoan bikain integratuak ditugu. Haiengandik hurbil ginenak, koadrilan joanak, nire kasuan Real baino futbol maiteagoa dudana, auzo-lotsak harrapaturik kieto igaro genuen partida osoa etxerako bidea hartu genuen arte. Beharrik, gustuko lagun minez igaro genuela asteburua eta restopeko bidekoak ekarri gintuela gure onera. Nekez harrapatuko naute berriaz holako batean, telebistak horiengandik ezartzen duen distantzia baliatuz jarraituko dut futbola errepikapenak eta guzti. ■

